



BOLUNTARIO ETAARRAZTALO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Oiartzun, 2024ko urtarrilaren 1a

ELKARTU DIRA

Alde batetik, BOLONDRES IZENA , 12345678A zenbakiko NA duena, hemendik aurrera BOLUNTARIOA.

Beste aldetik, ELKARTEKO ORDEZKARIA, 12345678A zenbakiko NA duena, **ARRAZTALO ELKARTEA**ren, (Oiartzunen Gaixotasun Mentala Duten Pertsonak Gizartean Eta Lanean Integratzeko Elkartea) (IFK G75022434) izenean eta ordezkartzan, eta jakinarazpen ondorioetarako helbidea 17. posta kutxa 20180 Oiartzun duena. Elkartea legez eratuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko elkartearen erregistroan.

Bi aldeek, ordezkatzeko dutenaren izenean eta ekitaldi hau gauzatzeko beharrezkoa den lege gaitasuna daukatela, honako hau,

AZALTZEN DUTE

- **ARRAZTALO ELKARTEA**ren helburua dela, Oiartzunen bizi diren eta gaixotasun psikikoak dituzten pertsonak lanean eta gizartean integratzeko jarduerak guztiak bultzatu eta sustatzea.
- Arraztalo Elkartea 2010ean Baratzako ekologikoen proiektua hasi zuela, lanpostuak sortuz herrian gaixotasun mentala duten pertsonak lan mundua integratzeko. Proiektu hori martxan mantentzeko boluntarioen bidezko auzolana ezinbestekoa dela.
- 45/2015 legeak eta Boluntariotzari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko 17/1998 Legeak ezartzen duten ezartzen duen moduan, boluntariotza sustatzen duen elkartearen eta boluntarioaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea beharrezkoa dela.
- Lankidetzaren hitzarmen horren helburua dela elkartearen parte hartu nahi duen pertsonaren boluntariotza arautzea.



BOLUNTARIO ETAARRAZTALO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Agiri honen bitartez, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea adostu dute, ondorengo legedia jarraituz: ARRAZTALO ELKARTEAREN Boluntariotzako Barne Estatutuek ezarritako irizpideak eta Boluntariotzari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko 17/1998 Legearen 8.3 artikulua.

BALDINTZAK

AURRENEKOA. Boluntariotzaz konprometua

, dokumentu hau sinatzean, ARRAZTALO ELKARTEAN sartuko da boluntario gisa, aurrerago zehaztuko diren baldintzetan.

BIGARRENA. Onarpena eta jarduerak

ARRAZTALO ELKARTEAK borondatezko lankidetzaz hori onartzen du, eta jardueraz hauek gauzatuko da:

- Elkarkearen helburuetarako proiektuak diseinatzea, garatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- Prestakuntza-jardueren garapena.
- Foroak, ekitaldiak, ikastaroak, jardunaldiak eta eztabaidak antolatzea.
- Sare sozialen eta webguneen kudeaketa eta mantentze-lanak.
- Kanpo harremanak eta lankidetzak.
- Jarduera nagusiaren menpeko edo osagarri diren lan guztiak egitea.

ARRAZTALO ELKARTEAK espresuki adierazten du aipatutako funtzio batek ere ez duela lanpostu egonkorrik ordezkatzeko, edo horiek sortzea eragozten.

BOLUNTARIOAK adierazten du badakiela lankidetzaz horrek ez duela inolako lan-eskubiderik sortzen, ez orain, ez etorkizunean.

Bi aldeek onartzen dute borondatezko ekintza hori egingo dela fede onaren printzipioaren eta Boluntariotzaren Estatutuen eskakizun etikoen arabera.

HIRUGARRENA. Boluntarioaren eskubideak

- a. Sartzen den erakundean aktiboki parte hartzea, erakundeari buruz jasoko beharrezko informazioa jasoz (batez ere haren xedeei, egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa), erakundean parte-hartze organoak sortzea eta organo horietako kide izatea.



BOLUNTARIO ETAARRAZTALO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

- b. Esku hartzen dueneko programa edo egitasmoak diseinatu, egin, burutu eta ebaluatzen laguntza ematea; horretaz gain, erakundeko boluntario den aldetik, berari ere badagozkion gaietan iritzia emateko eskubidea izatea.
- c. Boluntario-lanak eskatzen duen laguntza teknikoa nahiz heziketa- eta giza laguntza jasotzea eta bere izaera eta ahalmenetara hobekien egokitzen den lanetara bideratzea.
- d. Aseguratuta egotea, boluntario gisa lan egitean bitartekoren bati kalterik egin baliezaioke ere.
- e. Boluntarioak bere lana betetzeko xahututako dirua berreskuratzea, baldin eta erakundea eta boluntarioaren artean hitzartutako baldintzetan horrela ezarrita badago, eta, betiere, hitzarmenean jarritako muga barruan.
- f. Ekintzak boluntarioaren bizilekutik ahalik eta hurbilen egitea, programek eta egitasmoek horretarako aukera ematen duten neurrian.
- g. Bazterkeriarik gabe eta zuzentasunez tratatua izatea, boluntarioaren askatasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuz.
- h. Lana segurtasun eta higiene baldintza egokietan egitea, lanaren ezaugarriek eskatzen dutenaren arabera.
- i. Gizarteari emandako laguntzak merezi duen errespetua eta aitormena lortzea.
- j. Boluntario izateari askatasunez uztea, hori egin baino hilabete bat lehenago adieraziz.

LAUGARRENA. Boluntarioaren betebeharrak

- a. Arraztalo Elkarteari laguntza ematea, bere ahalmen eta borondatearen heinean, parte hartuz eta erakundearekin batera lan eginez.
- b. Erakundearekiko hartutako konpromezuak betetzea, erakundearen araubidea eta helburuak errespetatuz.
- c. Berari egokitutako lanak arduraz egitea eta erakundeko arduradunek ezarritako jarraibideei segitzea.
- d. Erakundeak aurreikusitako heziketa-ekintzetan eta lana behar bezala egiteko beharrezko ekimenetan parte hartzea.
- e. Boluntario gisa lan egitean jasotako edo jakindako informazioa isilpean gordetzea.
- f. Lagundu nahi dituzten pertsonen eta pertsona-taldeek eskubideak errespetatzea.
- g. Boluntario-agiria eta erakundearen bereizgarria egoki erabiltzea.
- h. Boluntarioaren esku uzten diren baliabide materialak zaintzea.



BOLUNTARIO ETAARRAZTALO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

- i. Oro har, boluntario lana ARRAZTALO ELKARTEAKO Boluntariotza Estatutuen 3. ataleko printzipioak betez egitea.

Onartzen diren segurtasun eta higieneko neurriak betetzea.

BOSGARRENA. Elkartearen eskubideak

Boluntarioen jarduera etetea, erakundearen programen kalitateari edo helburuei kalte larria egiten zaienean, edo programa horietan sartzeko akordioa larriki hausten dutenean.

SEIGARRENA. Elkartearen betebeharrak

- a. Behar dena antolatu, boluntarioak bai erakundean eta bai parte hartuko duen programa eta egitasmoetan bere laguntza emango duela eta behar duen informazioa jasoko duela bermatzeko.
- b. Egin beharreko lanak egiteko egokiak diren bitartekoak eta laguntza eman boluntarioei.
- c. Boluntarioei lanak ondo egiteko beharrezkoa den formakuntza eman.
- d. Boluntarioentzako aseguru-poliza sinatu; horren bidez, boluntarioak bere lana egiterakoan bitartekoren bati kalterik eginez gero aseguruak ordainduko lituzke kalteak, betiere araudian ezartzen diren baldintzetan eta araudiak ezartzen duen kapitalaren bidez.
- e. Boluntario gisa egiten duen berariazko lanari dagozkion segurtasun- eta higiene-baldintzak bermatu.
- f. Boluntarioari berak egindako lanak egiaztatzen dituen agiri bat egin.
- g. Boluntario berri bat erakundean sartzean egiten den hitzarmenean ezarritakoa bete.
- h. Boluntarioari egiaztagiria bat eman bere lanerako gaitu eta identifikatuko duena.

ZAZPIGARRENA. Eteteko irizpideak

- a. Boluntariotza aldiaren amaiera.
- b. Boluntarioak betebeharrak ez betetzea.
- c. Lankidetzaren hitzarmenean adostutako konpromezuak ezin betetzea.
- d. Elkartea desagertzea.

Boluntarioak lankidetzaren hitzarmena eteteko idatziz egin beharko du eten nahi den epea baino hilabete lehenago.

ZORTZIGARRENA. Gastuen likidazioa



BOLUNTARIO ETAARRAZTALO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

ARRAZTALO ELKARTEAk zerbitzua ematearen ondoriozko gastuak ordainduko ditu eta, hala badagokio, gastu horiek boluntarioari itzuliko dizkio, gastuak justifikatu ondoren.

BEDERATZIGARRENA. Iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eta indarraldia mugagabea izango da.

Aurreko guztia irakurri ondoren eta adostasunaren seinale, bi aldeek agiri hau sinatzen dute bi aletan baina ondorio bakarrarekin, goian adierazitako lekuan eta egunean.

BOLUNTARIOA

ARRAZTALO ELKARTEA

Sin.: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

Sin.: XXXXXXXXX